



Batikano'ko izparak.

—Beljika'ko katolikotar izpar- ingilariak Aita Santua ikertau dabe, eta urtero lez arpidez Aita Santua'rentzat biltzen dana eskiñi dautse. Aurten eskiñi dabe-na guztiz 250.000 lirara elizen da. Auxe izparingi katolikotarak arpidea Doipuruaren alde zabaltzea oso begiko egiten yaku, guztion Buru danaganako maitasuna bizituteko aukerakoa da -ta. Noz asiko ete gara!...

—Aita Santuak Gongotzañen «Pallium» Mar Ivanios siromalabartañen gotzain biurtutakoari ezañi dautso. Aita Santuak Me- sa bere eleiz - gelatxoan esan eban eta ingalanderaz itzaldia egin eutson. Ivanios yaunak malabañeraz zin egin eban, eta eskakizuna lateraz. «Pallium»a ipiñi ondoren Doipuruari oñetan mun egin eutson eta XI'n Pio besarkatu eban.

—Aita Santua Buru dabela gai oñeik erabagitiñen dituan Eleiz - Batzordeak, Antonio Maria Klaret, Miren-Biotzeko Semeen irasle eta Trianopoli'ko Gongot- zain izan zanaren bitartez egin- dako alatz edo mirari bi aztertu ditu. Zoriondun iragarteko auzi- ak astiro yotaten dirala ikusteko, gogoan euki bear dogu, auzi au 1899'ko urtean asi zala. Uste danez laster zoriondunen leñoan ipiñiiko da ainbeste lan egin eta ainbeste yazarpen igaro zituan Gongotzain ospetsu au.

—John Etoddard, katoliko biur- tutako ipar amerikar idazlearen alargunak, bere senararak bildu- tako Napoleon'en gomutaki bat- zuz XI Pio'ri eskiñi dautsoz. Bitxi batzuk, tintontzi bat, eta 1828'n egindako Napoleon'en irudi bat.

—Baita Van Berkel abak, Aita Santua'ri orduari edo erloju ba- kan bat eskiñi dautso. Egur uts- ezkoa da eta egunean iru bider ordua yoten dau, «Agur Mariak» esan bear diran iru aldietan. Ga- beukatz (erloju) o.i egin daben langile protestantea da.

—Egunokaz Aita Santua iker- tu dabe suizatar bidezkunde ba- tek. Ondo ezagutzen dituela itz- aldi baten adirazi dautse, katoli- lico sutsuak dirala ondo dakiela, eta auñerapen guztiak lengo bi- deakaz ederto alkartu leikezala -ta, ziñeste bidetik yaraitzeko esan dautse.

—Baita egunokaz ikerñu dabe, ingalandar ikastetxeko ikasleak. Aita Santuak itzaldi bat zuzendu dautse, Ingallanda ta Gales'ko goterkiak agurtuaz.

Gaspari kardenalaren Kistar Ikasbidea.

Lateraz eta italeraz batera egindako lenengo iyekia Gas- pari kardenalak Aita Santua'ri eskiñi dautso. Pazelli kardenalak idazki bat zuzendu eutson, ain- beste alegin eta arduraz eginda- ko lan onen goralben andiak egiñaz. Aita Santua'ren izenean

diñotso, abade gasteen biotze- tan, eleizaren irakatsien labur- penak argi ta garbi sustraitzeko aukerakoa dala. Uste dau baita zabalkunde audia izango dabela, Kristo'ren Agintzaren zabalkun- derako. Baita ila onen bostean bere 80'n urtean sartzen dalako Aita Santuak idazki samur bat bialdu dautso, bizitza guztian egin dituan lanak goralduaz, eta egun baketsu, leun eta luzea opa izanaz bere onspena bialtzen dautso. «Te Deum» bat esan da, lateñi ordelari asko bertan zirala.

Txiña'ko agintariak eta kato- likoak.

Txina'ko agintariak ba'dirudi aspaldian katolikotaren ontasu- na ezagutuaz doazala. Ondiño aldi gitxi da, Kueichu'ko irakas- kintza zuzendariak, txiñar aba- de katoliko bi, ikastaroko az- terketan azterlari izentau zitu- la. Oin osteratxiña'ko lateñi- ko txindi-uritasunadala-ta, agin- tariak auzi ori aztertzeko 110 lagunezko batzorde bat izen- tau dabe, eta euren artian po- zik dakuskegu bost katolika- tar sartu dituela. Ma Siang Pe, lege-gizon ospetsua; Wei Bei, Pekin'eko Katoliko - Ekintza'ko lendakaria, Edoardo Chang, Pe- kin'ko Ikastetxe Nagosiko iraka- sle ta zuzendari ospetsua, Ly te Sin, Ikastetxe lendakari ta Wu loeu Hoi katolikotar yakituna. Emen katolikotarak baztertzeko ainbeste alegintzen diran artean, Txina'rik be, ikasbideak etortez asko poztuten gara.

Katolikotarak eta Lateñi-arte- ko auzia.

La Vie Catholique Paris'ko asteroko ederak, Yoñala'ren 25' ko zenbaki osoa, gai oñetzako Eleizaren irakatsiekaz beterik dator. Ederto egiña batez be, Paul Chanson'ek egin daben «Essai de Synthèse des docu- ments Pontificaux» afala. Lau ingoskitan azkenengo lau Aita Santuek, lateñi arteko auziatzaz emon dituezan irakatsien labur- pena ederto egiña dakar. **L'Os- servatore Romano**'k be zenba- ki au goraldu eta oso egoki eisi dau, auzi oñen bari yakin gura dabenentzat. Bertako irakatsiak ez litzakioz txarto etofiko, ontzat dagozan izparingi askori be.

Irlanda'ko Eukaristi - Batz- aña.

Eukaristi - Batzar onetarako gertakizunak eginda dagoz, eta urñietatik bertarako urten dabe- nak be ba'dira. Australia'tik 300 katolikotaren Yoñala'ren 2'n Ir- landa'runtz urten dabe, eta Nue- va Zelanda'tik 150'k Yoñala'ren 14'n.

—Irlandararak, batez be baseñi- etan bizi diranak, Eukaristi-ba- tzaña dala-ta asmo begiko bat artu dabe. Sendi guztiak batzar onen gomutaz «Eukaristi - Ba- tzaña»ko zugatz bat ipinlea, on- dorengoetan Irlanda'ko yazokun

andienetarikoen gomuteak iraun dayen. Asmo begiko oneri in- dara emoteko alegin andiaz za- balkunde egiten diardue, eta alde guztietan pozez artua izan da.

Bosnia - Ertzegovina'ko Eu- karisti-Batzara.

Bagila'ren 3, 4 ta 5'n Saraje- vo'n Eukaristi-Batzar eder bat egingo da. Egun oñetan 50 urte betetan dira, XIII'n Leon'ek Eleiz -agintaritzaz legez arautu eba- la. Turkia'taeren menpetik urten ebe- la urte gitxi ziran, eta Austria -Ungaria'n ardurapean ipiñi eben. Gero ba'dakigu zer geria- tu zan. Egunoro Gotzain-yaupa eta batzarak izango dira, eta azkenengo egunean yai gustiak agirian.

Lugintza'ren alde.

Lugintza, erien aberastasunen sustrai ta gizonarentzat zorion -bide be bai'da. Ekintzak bariz lugintza eta erien oiturai egin dautsezan kalteak ikusirik, «Cath- olic Land Association» inga- landar bazkunak, ardura andi bat artu dau lur-langintzari in- dara emoteko, ola andietako ariskuetañik bide batez asko al- denduaz. Chiltern-Hills'en lur- alde andiak erosi dituez, eta lenen- go langile taldea bertaratu da. Igandez Yaupa ipiñi eben eta 3.000 lagun eldu ziran, eta baz- kunako idazkari Keafing yauna euren arduradun yauparia ipin- teko lanean dabil. Auxe, lugin- tzari indara emotea, emen be onuratsu, osasunkor eta ekan- duak garbitzeko ez litzake txara izango. Olango bazkunak noz egingo ete dira?

—**Los Angeles**, Ipar Amerika' ko Goterkian, katolikoak eruki -arasoetarako emon dabena, igesko urtean 1.020.592 dolar izan da. Gorputz eta gogoko bear izanetan lagun urkoari so- rositako eralgi dan txindi onek igali ederak emon ditu, eleiz-ira- katsi ta eragipena zabaltzeko.

—**Yapon'go** izparingi aundi «Mainichi» deritxonak, katoliko zeñeskeratzaz oraintzu idazki eder eta sakona argitaldu dau ta idazki oñetan yopondar kato- likotaren goralben andiak egi- ten dautsoz. On egitea langorik ez dago, egiari bideak zabaltze- ko.

Hindenburg Alemania'ko len- dakariak, yaungoikogabekeria zabaltzea asmozat dauken baz- kun guztiak sakabanatzeko agin- dua emon dau. Izan be basaitke- riñik urintzeko beste biderik ez dago. Ori agintari zur guztiak ulertzen dabe. Emen bariz Yaun- goikoa'ren izena baztertzeko zer egin ez dakiela... ¡Amaika ba' dago!...

M'TAR G.

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizarak, zumitz ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekale, 50

BILBAO

Euskal-erriko izparrak

Getxo.

Agur sutsu ta mañekor bat bialtzen dautso «Ekin»eko artezkari jauna'ri bafa berton idazten daben beste efi- jetako idazle gustijeri. Beraz artez- kari jauna neuretzat be egongo da toki apur bat izpartxu batzuk aste- roko begiko ofetan urten dagixan- tzat ezta? (1)

Eriri eri.

Igaro dan ilian Urduliz'go efitxu- ban E. A. B.'ren zabalkundia egin biar zala ta an ikusi gebar, arteik artu eziñik, geure Txibefi zintzua, ta egi esatekotan beraulakorik gitxi, olako gauzak atonduten.

Laster igariko dogu onek zabaldu dauan azijaren onurea.

Geure Jauna'ren Igokunde egu- nian efi onetan jai egin zan eta au dala-ta bertoko txadonan Afa Luzio Irukoitzafak euzkerazko txonitz eder bat zuzendu euskun. Bere abots zolijagaz izparingi txafen aurka jo eban onek zenbatzuk lotsabakokeri zabaltzen dituzan azalduaz. Txalo- gafi dira lekaide agurgafi onek egi- ten dauzan txonitzak.

Jatabe'n be laster zabalduko dala E. A. B.'ren bazkuna sufu-mufu andi dabil. Bertoko neskatilak badakije zer darabilen esku artian. Orain egun batzuk dirala poliño antzeztu eben «Olerkari bijak». Ezker asko irabazi dabez bertoko osalari ta irakasle zin- tzubak; onek bai dirala gixonak eu- ren zereginetan baña batez be Abe- fiatzaz aren usaiñ daukon gauzetan. Orain, txauburu jauna, pozik ikusiko dau zelan gure neskatilak atzeñiko oitura txafari alde egin eta geure jo- las garbijetan asiko diran ikustiagaz.

Datofen igandian Mungi'n E.A.B.' ko ikufiñaren onspena egingo da-ta. badakixube nora juañ biar dozuben egun ofetan.

Jatabe'tar neskatilak mungitafakaz alkartu ta al dozuben egun edefena igaro. An ixango gara geu be. J. I.

JATABETARA

(1) Bai ta pozik lekutxo bat itxiko dautzu- gu. Getxo'n aizkide onak doguz, arpidetuta. Ondiño baña geyago egingo dirala us.e dot.

Eunak eta soñeko egiñak Zea'rar Erupin

Cenderia 15

Bilbao

Erigoiti.

Ezkontzak.

Florenzio Enzunza ezkondu da Afietako Balbina Afibalzagagaz; bai- te aren afeba bat ezkondu da beste Bermeotar batagaz. Zorionak.

Ezkon-deyak.

Petra Forurian ezkon deyak asi dira Afatzuko Julian Malleagaz.

Yayoak.

Ignazio Guafotxenak izan dau se- me bat. Zorionak.

Izpar baltza.

Leon Ituriri il yako ume bat. La- gunduten dautsegu atsekabeen.

Yoan-etoriek.

Bilbotik Beko etzera etofi da bizi- ten Juliana Etxebarieta. Urte asko- tarako izan daitela.

Burubafen egon dan artzaña alda- tu zan lengo egunean befe efira.

S.

Oñetako ta puntotzko gauzak

Ugari, onak eta merke

EUZKERAZ ITZ EGITEN DA

BENGOA'TAR MATIAS

Artekale, 1 eta 7

BILBAO

Ea.

Ag! esan eban lengo igandian an- deraño batek, «EKIN» artuta; ontz- be eztakar Ea'ko izparfik... nik ne- bieri bialduteko Manila'ra, emeko gauzak ekartie nai dot.—Neure ar- tian: zergaitik ez ete dau inñok eme- tik idazten ba?... itxaroten egon na- neu-be norbaitek zer edo zer idatzi- baleu, baña bapez. Beste bateri en- tzun deusatz nun saltzen danez, «Ekin». Ara ba: nik irurotatik bateri- erosten dot Toña'nien edo Paula' salokijan edo Laixier'enien; efitafol- badakixue ba nun dagon «Ekin» ta erosi para-pafa.

Lore ila.

Oso ederto ospatzen da emeng- txadona bijetan; batien da bestien ederto abestuten dabe neskatila gaz- tiak, gotzontxu batzuk dirudije.

Jolasak.

Igande ilun abafian zeira-osteratxu bat egiñ neban, eta atsegindu nin- tzan asko emeko jantza -aufesku- edefak ikustian; jafatu gaztiak olan- txe, geure oitura garbiak goratuten. Labufa izateko ezkatuten dozun ez- kero «Ekin» ez nuatzu gogaitu era- giñen; besterik agertzen ezpada eme- tik ba, ufenguan be... neuk urter- biarko dot txarto idazten dodan afe- -be, baña, or konpon! Au be esan- biot: lanik eza dagola ortik diñue ba- ña... erliek opofik ez edo dabe egiñ- ba ona eztije sendo dator saltzen.

Amaitu jat ingije ta kitu.

PRASKU'REN LOBIA

E. eta S. Iraeta.-EIBAR

Era gustietako IKURAK
bai Euzko - Abertzalienak baita
Euzko - langileñenak be.

Burnizko kurutzak
Eibar'ko lan eritxusagaz landuta

OSO MERKE

Mañari.

Miren-alabak.

Igandian, zazpiretako mezan, Mi- ren-alabak geure ileroko Jaunartze- euki gendun. Eta afatsaldeko elekti- zuna iruretan egin zan.

Bederatziufena.

Goteunaren (Espiritu Santuaren) bederatziufena lengo barikuan as- zan. Iluntzeetan egiten da.

Juan-etori.

Santurtze'tik etofi zan Kapanaga- tar Bitor; Bilbo'tik, Belakortu'ta- Jon; Eloñio'tik etofita, euren amame- ren etxian aurkitzen dira, Sarobe'ta- Josebe ta Koldobikatxu umetxu po- liñak. Urkiolan aurkitzen da bedera- tziufena egiten Bildotsola'tar Pelis- anderea.

Oberantza.

Kaltzada'tar Saturniñe anderea bere gexuan oberantza andije eginda aurkitzen da. Poztuten gara.

Apari bat.

Egubaztenian, «Angufeta»ko afo- biko biargiñak, guztijak batera apar- eder bat egin eben. Eta, onangoetañ- beti oi dan lez, danak «animasiño» andijaz ibili ziran.

¡Ai mama gozuaren ala...!

Añain preskua.

Aspalditxuan, afain preskua jate- dogu. Ondafu'ko Eukeni mutila, ige- rotako urtian legez, antxoak ekarte- asi yaku-ta. Mutil onek, afaña se- neufi egokijan saltzen dabelako, ta pixuari be beria emoten gitxi laku- dalako, emeko atsuen artian begiko- tasun andija dauko. Ta eztautso g- txi balijoko... Esaten dabe ba, atsu-

begiko dan gastia oso «subertosua» xaten dala.

Jai begiko bat.
Datofen ilian Baltzola'n (J. L.) jai begiko bat ospatuko da, Sorkunde Garbi-garbijaren aintzaz. Ta jaya, ezta edozelakua ixango, txukun-txukuna baño. Jaun agurgafi batek ofertarako eskua ederto zabaldu dau-ta. Bertara juateko danok gagoz poz-pozik.

Kukua.
Nekéz baño seguru, lengo astian entzun neban, aurtan lenengoz, kukuaren otsa. Ta...? ¡Geldi or! Ogerleko bat eta txakur diru batzuk sake-lian nebazalako, pozik entzun neban eta. Beraz, aurtan, «zofi-poltsa»tik aske naz...

MAÑARIKO

JANTZIAK

gizonentzako Teodoro-nian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendu barik.

TOVALINA Y C.ª L. D.

SOMERA TT
BILBAO

Lenengo oñian sartukeria dendatik.

Iruña.

Baionan, mugaz arandiko gure aufidek argitaltzen duten «Gure Herria» ilekari edefian irakurten ditut lefo batzu, Itufalde jaunak emanak «Ekin» astekariaz; eta atsegiñekin irakurtu ditut, nere iritzi berbereko «Ekin» alderako agertzen delako. Untaz landara euskarari buruz mutilak dire, gero mugaz arandiko euskar idazleak! Nik beñipein; gai ortatik ari direlarik, aoa zabalik eta begi anditurik aditzen ditut. Azkeneko «Gure Herria» dituzue dioten itz-on oriek.

«Abeñi-eguna» delako gutun eder edefia, ikusi dugu, irakurtu eta edefetsi dugu alde guztietarik: biziki eder eldu da.

Ala-ulako aroa dugu egun oketan, otz eta busti; juan den larunbat afa-tsean mendietan elur egin zuen; nekazaria kexu da, lur langiro txafa duelakotz.

Iragan ostirale afatsean Donostia-tik radiatu zuten Agife jaunaren itzaldi edefia.

Ongi aditu ginuen erderaz izanagatik. «Estatuto»aren iturburu eta oñafiak azaldu, efan zigun zergatik den orai estatuto erdiesteko aldi ona eta untartzeko egin dituzten bideak.

Esku zarta edefik entzun ginuen itzaldia bukatu. Agife jaunak artu beza gure zorionik beroena.

Kanpion jaunaren emazte-anderea juan den astean il zen. Aren il mezetan eta loiaren eortzian gizonketa andia bildu zen.

«Emakume abertzale batza»k, meza bat emanazi du Aldapa-ko elizan Galdiano andere zanaren alde eta eliza bete-betea egon zen.

Jainkoa baitan bego eta otoitz bat Jainkoari leen bailen eman dezon betiko zoriona. Kanpion jauna ufikari dut: erdi ezindua, erdi itsutua, gorturik eta bere bizitza guztiko lagunak uts egitea, bi aldiz ufikari: ez da afigafi ni jaunaren gana urbiltzean nere biozminaren itzak efanen, biotza bete zitzaioa eta nigafari eman zela.

Jainkoa baitara biotza eta gogoa eramane eta antxe uzki, esan nion. Ez da beste biderik atsedateko; ori esanik, agur ixil-ixil bat egin nion.

Iruña-ko komunistek Igandean bil-

kura zuten, bizpairur izlari izan omen zituzten, Pestaña eken artean.

Iruñan gartzelan zauden Gazteiz-ko komunistak itzuli omen dituzte etofi ziren bidetik. Ori jakitean ez dugu nigari egin.

«Gayafe» idekiezgeroz, egunero edo gauero kantari-talden antzerkiak ematen dituzte.

España guztian asko ezaguna den Seberino Aznar jauna, azken egun oketan Iruñen ginuen.

Salinas jaunak, azken egun otan ez omen zuen egunkarientzat befirik emateko.

Alkate jaunak agindurik il unen 9' gafenetik eta 14' gafeneraño, afa-tsaldeko iru etarik aufera, aufen xertatzea, San Franzisko delako eskolatan.

Gazte ikasiak ba omen dira bildurik «Ateneo» delako bat egin nai dutenak eta ortarako lanean ari direnak.

Juan den Igandean abertzaleak zortzi efietan beste ainbeste bilkura izan zituzten abertzaleatasunaren azia ereiten: Uarte-Arabil, Gaunza, Nuin, Belzunze, Afoniz, Lafion, Unzue, Pueyo.

Oraiko aldi untan oro izlari baigara, ogei jaun andereño izlarien gain zortzi efietako lana. Alde guztietan abertzale mintegiak landuz ari dira. Jainkoak lagun ditzala eta digula euskalefiko guzti-guztiak gure ganatzeko.

LAREKO

Kandela-ola andija

Jaupagintzarako bedegafak. Jaureskixunetarako ta etxietarakuak. Iraunkoak, argitsuak, merkiak.

OBARIK AL BE... EZ

Olabarieta'tar Jon

DURANGO. (Bizkaya) Deun Ane-Zeya, 3

Gernika.

Euzkel jai bat.

Gernikar Euzko Batzokijan, igaro zan larunbat gaberako eratu gendun jayak, oso egokiyak, eta oso atsegiñak urten euskun.

Guzti-guztia euzkeraz egin zan, (1) geure efi oneri jagokan lez, eta erderaz itxzu bat be etzan gau guztian entzun.

¡Pozgafia benetan, larunbat gabeko jai begikoa!

Teleria'ta Iñaki izlari egin-egiñak, eta gero Isusi'tar Mirentxu, Emakume-Abertzale-Batza'ko neskatilatxak, ondo orakutsi euskuen izlari gorenengotarikoak izatera doyazala. Izlari bien lantxuak oso txalotuak izan ziran.

¡Zorionak zeuori!

¡¡Muxika'ko JAURI basetxeko txindor-kumia dan Enbeita'tar Sabin'ek jaukik ekafia, irakurle!! Amaituteko be agindu egin bear, bestela oindiño be, bertsuetan egoan al ¡Zelako zirikadak jaurti zituzan, esker-eeskuma alde bietara, baña!

Gau-jaitxua amaitu eta lagun ge-yenak etxeratu ta gero be, gure Sabin zintsoa Batzokian geratu zirana-kin ekin da ekin, itz-neurtuak dario-la, an egoan.

Euzko-abestiak ugari, baña ugari abestu gendu zan, eta abesti onen bitartian ariñagoko igandean METXIKA ausotegi politean egin gendun «euzkel-irakurte-sariketea» sariak irabazi zituezan neskatilari bezuzak, euzkel-liburu egokian emon jakoezan.

Neskatil sarikuak onek izan zirean: Irala'tar Irene. Olaeta'tar Pelise.

Goitisolot'ar Sabiñe.

Alegria'tar Josune.

Lau neskatil oneri «Lauaxeta»ren BIDE-BARIAK eta Kirikiño'ren ABARAK emon jakoezan.

Ortuzar eta Gometza'tar Andone neskatilatxuari be LUTELESTIA emon jakon.

Euren sariak artzen auferatu zire-anean guztiak ondo txalotuak izan zirean baña batez bere Andonitxu txikia.

Jai begiko au EUZKO ABENDAREN ERESERKIA abestuaz amaitu gendun.

Elai-alai.

Iragafita egoan lez, igaro zan astelenian bafiro agertu jakuzan LIZEO deritxon antzokijan geure ELAI-ALAI'ko neska-mutikotxuak.

Euren agerkizun guztiak oso txalokatuak izan zirean batez be «Jaun-Zuria'ren zin-egitea» eta AMAYA'ko ezpatadantzea.

Bai seiretan eta bai bederatziretan antzoki edefa lagunez bete-beterik egon zan, eta diruda polita atara eben.

Santzo eta txaloak ugari izan zirean, eta joan ziren lagun guztiak oso pozik antzokitik urten eben.

Atzo il zan Hernando Etxebaria'tar Madalene, urte askotan irakasle izandakoa.

Bere il-obiratsera gure Udala eta lagun asko eta asko izan ziran.

Baita il da Ribera'tar Nikanor be. Artu begie sendi bitsuok geure tamal-agufik beroena.

Endore-otsein dan Usatofe'tar Bitor eta Lexarzegi'tar Elene, lazter ezkontzen dira. Zorionak.

Aboitz'tar Jon jauna TXILE'ra joan da. Ondo ibili, adizkide.

Igaro zan astelenian emen agurtu gendun OGOÑOPE izlari zintzua. Bakafik ez-ebilan baña.

AIKO

Eleizkixunetarako Argizagizko kandelak

Eleixiak aginduta daukazan erakuak

Kandela motak: MAXIMA ta NOTA-BILI, zigufitasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.

Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezker, argizagi asko aufeztuten da.

QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA

GAZTEIZ.(VITORIA) - ARABA

Elantxobe.

Idaztitegirako.

Idazti pilua bialdu deuskun Gar-teiz'tar Martin jaunak. Onexek maite dabezala bai bere erija, ta Elantxobe-ko umetxuak. Oingo idaztijak danoentzat, dira egokiyak batez be umetuentzat. Zuek ainbestian maite dozuen ta amabostero artze dozuen «Hosanna» aldizkingija iru urtietakua iru idaztitan batunda, da Bilbao'ko «Kostka» gaztetxuen batzafeko «Flores y frutos» deritxon efebistia 1913'ko urtetik 1930'gorañoakuak idazti bitan batunda. Onez ganera orantzu salgei agertu dan «Lutelestija» edo Geografija euzkeraz. Euskeria esateko gausabe ez dala diñuenak irakufi dejela «Lutelestija» au ta ekafi deizkuela beste bat «erderaz» umientzako obeto eginda badago. Esetz eskefak Jauna, gure aldetik eta umetxuen aldetik Elantxoben izenian. Beofen izena gomutan dogula irakufiko doguz. Goiko Jaunak, esku zabalez ordaindu beio.

Deun Kepa egunerako.

Mezia ikasten azteko ei-dira gure abezlarijak. Afantzaliertzako aldirik

onena ez da oingaa, baña Deun Kepa egunian Mezan abeztuko dabena egija da. Txaunskindari bafijak ez deusku makalak urten. Mutila da gero Laurentzi organua joten.

«Teribliak» emen be.

Ementxe ibili gara siñestu ezinda, baña baietz da baietz diñoskuen ezker, egija izango da «tefible» banakak-banakak erne jakuzala. Norbaitzuri umetxuak papafietik dingilizka daroiezan kurtziak iguiña emoten eidotze.

Nortarak zarte?

Ze izen daukazue? Titiro, Plarito, Terenzio, Melibeo, «pagano» izena? Ba kristiñauak bazarie, ez al dakizue zeññ da kristiñauen ezaugafija? Bakixue dotriñarik? zuen gurasoak ez al zirian il kurutzia ezkuetan ebela? Ildokian, kanposantuan kurutzien garizpean ez al dagoz berbizkundiari begira?

Apaingaritzat.

Belafitakuak, eraztunak ofatzak eta olan eruaten badira ¿ze apaingafi edefagori bulafian-bera kurutzie edefa baño? Danok onan agirijan kurutzia eruango bagenduke ez giñake ibifiko jolas ta lagun badezpadako azkoen artian, kurutz au zaindari ona dogute. Ofegaitik guri ez deusku enpagurik emoten, ta egija bada eziñ aitu dogu zelan amufatu eragiten dotzen umien ta nezkatiñen kurtziok, kristiñauak izena daroenari.

Dabiltzazanak.

Bilbo'tik ona Mendialdua'tar Jon beren emaztiaga; Batzelonatik Eindetza'tar Imanol eta Gametxo'tar Bitorin. Muselera ta ontzira Uriagareka'tar Martin gure adizkidiak.

Gaixorik.

Daukagu Martiñe «estankeria» andra guztiz esaguna. Osatuko alda.

LILI-EREKA

ELEIZ-JANTZIAK

ABADIENTZAKO JOSTOLA

José Moreno'ren semiak

Dato 15 - Gazteiz -Vitoria

Akorda.

Itxartuta.

Elantxobe'ko «Lili-efeka»ren dei-ari erantzunez emen nator, lenengo aldiz, asteroko maite onetara. Lo-zofuan gagozala -ta, oiñ puntiagaz ukutu baño len, itxartu gagizan, efitxu onetan izpar geyerik ez da egoingo baño, aztero-aztero zelan edo -alan jafaitzeko asmoz.

Igandeko jaya.

Igandian jai oso politik egin ziran efitxu onetan. Mundaka'ko eta Elantxobe'tafetan be asko etofi ziran, eta sekulako Mesea euki gendun. Abestu be ¿zelan baño? Gero ezpatadantzari, aufezku eta itzalija-be egon zan. Afatzaldian, mayatzeko lorak eta sal-bea. Benetan jai polita. ¿Noiz arte? Etofi atzera -be len-bai-len ondo artungo zarie-ta.

Lugiñak.

Soluetan gure lugiñak leña diardue lufak aztertuten egualdi onari beria emon gurarik. Zugatzak (arbolak) loratzu dagoz, eta ez-biafik ezpadogu aurtan ganbarak igaliz edo frutaz bete bear doguz. ¡Gaztiak! agiñak zozoztu, makatzak eldu dira iya-iyata.

GERO-ARTE

Nai dozun arte, baña onetarako, nai-ta-naiezkoa dogu zeure ixen-abixenak jakitea.

Joseba Deuna'ren Idaztitegia
(Libreria SAN JOSÉ)

Bilbao'n danik orniduena uz-kurtz'izazko saloskai gauzetan.
BILBAO'n Lofarla 2

Gazteiz.

Lengo neure idazkian niñuan lez Gazteiz ta Araba'ko efietan ikusten da Jaungoiko ta euzko-gizarte alde lan egiteko gogua bizkortzen dala, batez be, gazte artean.

Neuk ezagutzen dodaz mutilak, ondiño gazte-gaztiak, igande ta jaya datofenian, leyatzu ta zintzotasunik andienagaz duazenak efirik-efi, gaur batera biar bestera, baña utzik egin barik; lan egunetan begira dagoz jairako, beti lanian ekiteko jai ta azte; bakotxari jagokozan lanakaz. Aste-gunetan ola, saleroztoki ta olango lanetan; jayetan Jaungoiko, euren gogo ta euzko-anaitarteko arazoetan.

Jaungoikua'ri ezkefak gaste onen biotzetan badago Beraganako zale-tasuna, baita be euzko-anayentzako. Jan-edankeri, gaztekeri, aztokeri ta beste onen antzeko *Kerietan* dabil-tzanari jaramon barik, onelanguak alde batera itxi euren goguak, soiñ, gorpuzkerian ganetik ipiñita Jaungoiko mafasun ta euzko-anai-mafasuna bafuan dabezala or duaz bastefik -baster eguna onuratzu igaroten ta iluntzian ¿nora? Ez zine, akeitetxe, ardantegi ta beste onen antzeko tegietara, ezpada euren lagunekana, euren batzokira oneri eguneko lanen bafia emoten, guztiak, alkar ulertu ta batera alkartasunian jokatuteko.

Euzko-langileak.

Len aifatu doguzen lanetan bizkor eta sutzuen dabilzanan euzko-langile-bazkunakuak dira. Eurak aupada egiñarte ez da Gazteiz'ko langile artian olango asmuakaz beste langilerik ibili; ¡Bai zera! Igande ta jaya dator, ba, eurak, biar bada Jaungoikuaganako ta euran gogoaldeko egin bialak oso aitzuta, orduaz Betoño, Durana, Ganiafa ta Gazteiz inguruko efietara, emeko ardantegi ta jate-txietan mozortu ta euren biraiñ ta nazaikeriekaz inguru guztiek ondatu ta galtzen, ostera gure langile begikuok beññ Araya'n, bein Agurain'en ta Kanpezu'n ta beste efietan asper-tu barik diñardue euren anayeri irak-tzi onak emoten, euran alkartasun-nera ekari ta geruago indar geyago euren aldera ekarten. Mutilak, ez galdu astirik, ori da zuen bidia, jo ta keia, ta aufera.

Egunokaz artega babiltz Gazteiz inguruan; izkilu ta buru makildunak be ugari; emen diñue, baten batzuek asmu galgafiak bafuan dabilzazala, baten zubiak apurtu bestian Gazteiz'era datozen urak, Gorbea-menditik, edendu, *enbenenau* gura ditubezala ta olango izketak ex-ixilik, agirian diñoez ta Gazteiz'en asi ta Gorbea'ko iturbururaño gure mutil-txapel-gofiak (miñoak deitzen yake emen) urbide guztia zaintzen dagoz gau ta egun. Lenago erañeko aziak orain ekatzak.

MENDIZOROTZ

EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK

AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n

Igali edo *fruta* ta basoko zuga'zak-Landa, ta ortu -azijak. Zimaufak; ko-kuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskixunak. Ortu ta barat-eredubak.

Ubide.

Mendirra, euren artaldeakin, igon dabe, gure artzaiñak, beti lez.

Egualdi onari begira gagoz, artoak ereiteko.

Efi onetako neskatila bat laster eskontzen dala diñoe erbesteko mutil batekin.

Arto, baba ta lusagafa ereiten irakatsi bear deusela, efi onetako lugiñai ta, kapela ta belbildun bat (Albaretzekoen antza eukan) agertu zan efi onetan. Ondo dago.

Baña arto ta enparauak ereiten